

JARDUERA GIDA

Siurwotl

Emakumeak
aldaketak lantzen

Eduki prestatzaileak:

- Maite Mikeleiz Berrade
- Mónica Nuño Viguria

Edizioa: ONAY

- 948 176 048
- onay@onay.org
- www.onay.org

Diseinua: Vedia Design Studio

Finantzatzailea: Nafarroako Gobernua

LG: NA 497-2024

Zilegi da lan hau askatasunez kopiazea,
banatzea eta publikoki komunikatzea, betiere
egileak nor diren aitortzen bada eta helburu
komertzialetarako erabiltzen ez bada.

Aurkibidea

Gidaren aurkezpena	4
Helburuak eta edukiak	5
Proposamen didaktikoa	6
Jarduerak:	
1. EZAGUTZEA, ANTZEMATEA ETA GEZURTATZEA	7
2. EL SALVADOR, LEKU BAT MUNDUAN	9
3. FRUTA BAKOITZA BERE GARAIAN	12
4. URTE OSOKO ELIKAGAIK, ELIKAGAI KALTEGARRIAK	14
5. URRUTIRA BEGIRATU, HURBIL EROSI	16
6. GURE INGURUKOENGANDIK IKASI	19
7. ALTERNATIBAK	20
8. ELTZE-PLATEREN ARTEAN	23
I. Eranskina	24
II. Eranskina	26

Gidaren aurkezpena

Gida hau “Siwatl: Emakumeak aldaketak lantzen” proiektuaren baitan dago, ONAYk bultzatua eta CORDESen eskutik garatua. ONAY Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailean (ETCG) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan diharduen Nafarroako GGKE bat da.

Hego Globaleko herriekiko gure lanean, tokiko erakundeekin eta herri protagonistekin batera aritzen gara, haien eskari eta kezkei eman beharreko erantzunak ziurtatzeko. Erakunde horien artean, El Salvadorreko CORDESek hiru ardatz nagusi ditu: emakumeak ahalduntzea eta haien eskubideen defentsa egitea, Elikadurarako Giza Eskubidea, eta parte-hartze soziala eta gizarteratzea. ONAYn eta CORDESen, bi-bietan, uste dugu hezkuntza eta gizartearen sentsibilizazioa oso garrantzitsuak direla, mundu ekitatiboagoa eta jasangarriagoa lortzeko Iparra-Hegoa errealitatean.

Siwatl hitza náhuatl hizkuntzatik dator eta hein batean lurra esan nahi du, baina, hala ere, substratu huts hori baino gehiago da, **ingurunearekiko eta naturarekiko dugun lotura** izendatzen baitu. Hala, Siwatl proiektua ideia horren inguruan dago kokatua, eta argazki erakusketa bat da haren osagai nagusia, proiektuko emakume protagonistek bizilekutzat duten ingurunearekiko lotura erakusteko. Emakumeok agroekologian eta ekintzailertzan prestatu dira baratze txikiak sortzeko eta, horien bidez, beren komunitateak mantentzeko eta emakumeen eginkizun sozialari balio handiagoa emateko. Horrenbestez, erakusketaren bitartez, emakumeek erakusten digute zer bide jorratzen ari diren elikadura-burujabetasunerantz jotzeko eta emakumeak ahalduntzeko.

ONAYk zinez uste du oso garrantzitsua dela **gure kontsumo jarraibideak aldatzea**; zehazki, gure elikadura jarraibideak aldatzea, komunitate bidezkoagoak eta jasangarriagoak lortuko baditugu. Beraz, hau aukera ona da, batetik, El Salvadorreko komunitate batzuek nola egiten duten ikasteko eta, bestetik, **Nafarroan** zer aukera eta ekimen ditugun eskura jakiteko, gizartearen eraldatzen laguntze aldera.

Proposamen honen bidez, Iparra eta Hego Globala lotzen dira, hau da, Nafarroako egoera eta El Salvadorreko egoera; kontsumo mota batzuek eta besteek dituzten ondorioak ulertzen ditugu eta, horregatik, gizarte eredu kontziente, bidezko eta jasangarriaren alde egiten dugu.

Helburuak eta edukiak

- Nafarroako herritarrak kontzientziatzea Hegoko herrialdeetan gertatzen diren eskubide urraketei buruz.
- Elikadura-burujabetasun kontzeptua ezagutu eta ulertzea, bai eta horren aldeko borrokan El Salvadorreko emakumeek duten zeregina ere.
- Herritar kritikoak eta arduratsuak bultzatzea, tokiko errealitatea eta errealitate globala eraldatzeko konpromisoa dutenak, elikadura-justiziaren eta genero-berdintasunaren bidez.
- Gizarte- eta ingurumen-justiziarekin eta ekimenak sustatzeko sareak eta aliantzak sortzearekin konprometitutako bizi-ereduak lortzen laguntzea.

Hezkuntza gida honetan hainbat adin eta testuingurutara egokitu daitezkeen jarduerak irekiak proposatu dira. Ondoren, erakusketaren eta jardueren bidez lantzen diren edukiak zehazturik ageri dira:

- Emakumeak ahalduntzea eta haien eskubideak.
- Elikadura-burujabetasun eta elikadura-segurtasun kontzeptuak.
- El Salvadorreko landa inguruneko egoera politikan, ekonomian eta kulturean.
- Iparra-Hegoa loturak: kontsumo moduek Hego globalean duten eraginaren gaineko lotura eta ondorioak.
- Ingurumen inpaktua, kontsumo ereduaren arabera..
- Nafarroako errealitatearen eta El Salvadorreko lurraldeen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak.

Eta, zeharka, beste gaitasun batzuk ere landuko dira, hala nola:

- Kontzientzia eta hausnarketa kritikoa munduko errealitateen aurrean.
- Gizartea eraldatzeko aukerak eta ekintzak ezagutu, bilatu eta sortzea.
- Emozionaltasuna, empatia eta justizia zentzua.
- Lankidetzak eta erantzunkidetasuna.
- Konpromiso gaitasuna.

Proposamen didaktikoa

Hasteko, esan behar da hemen zehazturik ageri diren jarduerak taldearen, espazioaren, baldintzen eta abarren arabera egokitu behar direla. Hau da, ez da proposamen itxia, moldagarria baizik, edukiak egiazki esanguratsuak izan daitezen hartzailentzat.

Era berean, jarduera hauek aipatu edukietan sartzeko atea dira, baina kontuan hartu behar da edukiak konplexuak direla; beraz, badago aukera bai **arazoetan sakontzeko**, bai arazoen bidez sortzen diren gaiak ikertzeko.

Alde horretatik, ikas prozesuak taldearen kezkei erantzungo die, proposatu diren galderak gai sorta zabala irekitzen dutelako. Gaiak, hala ere, **Iparr-Hegoa ikuspegitik** jorratu behar dira beti. Hau da, zuzeneko ingurunearen eta errealitate globalaren arteko loturen bidez.

Parte-hartze aktiboa funtsezkoa da ikasleen kontzientziazio eta sentsibilizazio prozesuetarako. Hori dela eta, parte-hartzaileak gaietan ekintzaren bidez inplikatzearen alde egiten dugu gida honetan. Behin edukiak landutakoan, konpromiso batzuk hartzea proposatzen da, dela norberak, dela taldeak, edota ikasleen kezkekin bat datozen ekintza edo proposamen bati heltzea.

Adibidez, dinamiketako bat landu eta gero, edukia sortzea aukera ona izan daiteke **gizarte sentsibilizatorako**. Hainbat gauza egin daitezke, hala nola ikasitako informazioari buruzko kartelak prestatu, irratsaio labur bat grabatu ikasitakoa azaltzeko eta sare sozialetan zintzilikatzeko, bisita gidatu bat egin jardunbide egoki nabarmen-garriak egiten diren lekuetan, etab. Horretarako, jardueretan zehar, argazkiak edo bideoak egin daitezke, elkarrizketen erantzunak idatzi edota prozesua bera dokumentatu. Horrela, parte-hartzaileek protagonismoa izanen dute eta gaiak gizartean zabaltzeko eta jendearengana hurbiltzeko eragile aktiboak izango dira; halaber, saiatuko dira gero eta jende gehiagok gaiak bere egin ditzata eta haietan inplikatu daitezela, gaien gaineko kontzientzia ere har dezaten

Azkenik, ezinbestekoa da etengabeko **ebaluazio prozesua** egitea, ikaskuntzak finkatzen joateko, eta ezinbestekoa ere baloratzea zein landu behar diren sakonago eta zeintzuek pizten duten interes handiagoa.

—MATERIALAK

- Argazkiak (I. Eranskina)

—HELBURUA

- Begirada irekitzea El Salvadorreko aniztasunari eta aberastasunari.
- El Salvadorri buruz izan daitezkeen estereotipoak eta aurreiritziak haustea.

—DINAMIKA

Taldea 5 pertsonako talde txikitan zatituko dugu. Talde bakoitzari I. eranskinean erantsitako irudiak banatuko zaizkio.

Talde bakoitzean, El Salvadorri zein irudi dagozkion eta zein ez eztabaidatu eta erabakiko dute. Egia esan, irudi guztiak leku hartakoak dira; hala ere, hautaketa hori egiteak parada emango digu herrialde pobretuen inguruan izan daitezkeen aurreiritziak ezagutzeko.

Jarduera honen xedea da parte-hartzaileek ikus dezatela zeinen **dibertsitate handia dagoen herrialdean**, zeinen oparoak diren natur baliabideak, paisaiak, kultur aniztasuna, etab.

Behin hautaketa egin ondoren, talde handian izango da hizpide, argudio guztiak entzuteko. Prozesu horretan, talde handian adostuko da zein irudi diren El Salvadorrekoak eta zein ez.


Ondoren jakinaraziko da irudi guztiak herrialdekoak direla.

Irudietako batek jakin-min berezia sortu badu, Interneten bilaketa txiki bat egin daiteke, huraxe zer den sakonago jakiteko.

—GOGOETA

- Zertan dira berdina baztertu ditugun irudiak?
- Zeintzuk izan dira irudi horiek baztertzeko arrazoi nagusiak?
- Zerk eraginda esan dugu ziurtasunez irudia El Salvadorkoa zela?
- Zertan da berdina gure egoerarekin eta zertan ezberdina?
- Bada bereziki harritu zaituen zerbait?

—BALIABIDEAK



Link >

—MATERIALAK

- El Salvadorreko eta Nafarroako mapa inprimatuak eskalan.

—HELBURUA

- Herrialdea eta El Salvadorreko testuingurua ezagutzea, herrialde horren eta gure tokiko egoeraren arteko datu konparagarri batzuen bidez.

—DINAMIKA

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da jarduera honek Nafarroaren eta El Salvadorren arteko datu konparagarriak erabiltzen dituela, eta datu horiek egokiro erabili behar direla. Datuen asmoa ez da inola ere prekaritate irudirik sortzea, baizik eta El Salvadorreko egoeraren gaineko erreferentzia ematea, Nafarroan dugun informaziorik zehatzena eta berehalakoena erabiliz.

El Salvador eta Nafarroako mapak eskala berean inprimatzea proposatzen da.

Ondoren, datu hauek aztertuko dira ahalik eta erarik bisualenean..

	NAFARROA	EL SALVADOR
Luze-zabalera	10.391 Km ²	21.041 Km ²
Biztanleak	649.946 biztanle	6.314.000 biztanle
Biztanleak Km ² -ko	65 habitantes Km ² -ko	301 habitantes Km ² -ko
Diru-sarrerak bana beste pertsonako	2.800 € hilean (33.798 € urtean)	405 € hilean (4.865 € urtean)
Gutxieneko soldata	1.000 € hilean	339 € hilean
Nekazaritza eta abeltzaintza	<p>Labore nagusiak: garia, mahatsa, garagarra, alpapa, azalorea, patata, tomatea, zainzuria eta orburua.</p> <p>Behi-azienda: esne-ekoizpena eta kontsumoa</p> <p>Beste batzuk: ardiak, txerriak, hegaztiak, etab.</p>	<p>Labore nagusiak: artoa, basartoa, frijoleak, azukre kanabera.</p> <p>Behi-azienda: batez ere esnea ekoizteko</p> <p>Hegaztiak: arrautzetarako eta hegazti-haragia kontsumitzeko</p>

LUZE-ZABALERA:

Zuen ustez, zer-nolako handitasuna du El Salvadorrek, Nafarroarekin alderatuta?

Galdera horren ondotik, eskalako bi mapak erakutsiko dizkiegu eta ohartuko dira El Salvador oso herrialde txikia dela. Erdialdeko Amerikako txikiena da. Nafarroarekin alderatuta, Nafarroaren bi halako da doi-doi.

BIZTANLEAK:

Zenbat pertsona bizi dira leku bakoitzean?

Interesgarria izango da biztanleria-dentsitatean dagoen aldea ikustea; izan ere, El Salvadorrek Nafarroak baino ia 10 aldiz biztanle gehiago ditu. Mapa zatitan banatzea proposatuko dugu (10 atal berdinetan, adibidez) eta lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera koloreztatzen joatea..

DIRU-SARRERAK:

Zein da batez besteko diru-sarrera pertsonako? Zein da gutxieneko soldata?

Atal honetan azaldu behar da desberdintasun asko egongo direla biztanle batzuen eta besteen artean, jakina; baina, pobrezia egoeran biztanle gehiago daudenez, leku bateko eta besteko diru-sarreraren arteko aldea oso handia dela. Hemen ere esan behar harko litzateke diru-sarrerak eta aberastasuna ez direla gauza bera; adibidez, El Salvador oso aberatsa da baliabide naturaletan; sistema ekonomikoak, ordea, aberastasuna galarazten du.

ELIKADURA:


Zein dira labore eta azienda nagusiak leku bakoitzean?

Galdera horri dagokionez, leku bakoitzeko oinarrizko elikagaiak zein diren ikertzea proposatzen da, horrek argibide asko eman baititzake herrialdeen bizimoduari, kulturari, elikadurari, osasunari, e.a. dagokienez.

—GOGOETA

- Zer dela-eta du El Salvadorrek hain biztanleria-dentsitate handia?
- Zergatik da gutxieneko soldata hain txikia? Zenbat jendek dauka lana El Salvadorren? Langile gisa aitortutako pertsonetatik zenbat dira emakumeak eta zenbat gizonak?
- Zer jotzen dugu aberastasuntzat? Hainbeste labore badute, zergatik dira diru-sarrerak hain txikiak?
- Zer desberdintasun daude leku bateko eta beste elikaduraren artean? Zergatik gertatzen dira desberdintasun horiek? Zer ondorio izan ditzake elikadura batek edo besteak osasunean?

—BALIABIDEAK



Link >

—MATERIALAK

- Frutak eta barazkiak
- Barnean zer dagoen ikustea eragozten duen poltsa bat
- Begiak estaltzeko antifaza edo zapia
- Fruta eta barazkietarako Tabú-txartelak

—HELBURUA

- Ematen eta proposatzen diren elikagaiak zein diren jakitea, eta elikagai bakoitza bere garaian erein eta bildu behar dela ikastea.

—DINAMIKA

Talde handia talde txikiagotan banatuko dugu, dinamika aldi berean gauzatu ahal izan dezaten.

Banan-banan, taldekide bakoitzak dagokion fruta-alea edo barazki mota asmatu behar du, azkenean kide guztiek parte har dezaten. Begiak itxita egin ahal izango da ukimenaren bidez, edo tabuan jolastuz, hitz debekatuak jarritz. Hainbat garaitako elikagaiak landu ahal izateko, modu bietan lan egin daiteke, hau da, garaikoak direnak fisikoki eramanez eta, Tabu txarteletan, berriz, une horretan lortu ezin ditugun beste garai batzuetakoak.

- **Tabú:** Deskribatu behar duen pertsonari txartel bat ematen zaio, eta, hartan, fruta edo barazki baten argazkia agertuko da... bai eta 3 edo 4 hitz debekatu ere. Elikagaia deskribatzen hasiko da, gainerako taldekideek asma dezaten. Ezin izango du esan erro bera duen hitzik, ezta debekatutako hitzik ere. Parte-hartzaileen adinaren arabera, hitz debekatu batzuk edo beste batzuk proposatuko dira. Adibidez, sagar bat badago, ezin izango da esan sagarrondo batetik datorrenik, eta hitz debekatuak hauek izango dira: Edurnezuri, fruta, tarta.

- **Ukimena:** Talde bakoitzari poltsa bat emango zaio, baina barnean zer fruta dauden ikustea eragotziko duena; eta beste poltsa, kaxa edo gainazal batean fruta-ale bat jarriko da. Gainera, antifaz edo zapi bat emango zaie, aukeratu-tako fruta ikus ez dezaten.

Elikagai berberak edo ezberdinak ematen ahal zaizkie taldeei, zer lortu daitekeen edo zer lan egin nahi den. Ezberdinak badira, ona izango litzateke talde bakoitzak bere egitekoa amaitu ondoren, talde handian bateratzea.

—GOGOETA

- Ezagutzen al genituen atera diren elikagai guztiak? Jan egiten ditugu?
- Noiz jaten ditugu?
- Zergatik ez ditugu urte osoan jaten?
- Zer da fruta eta barazkien garaien egutegia?
- Zergatik uste dugu elikagaiek ere badituztela garaiak?
- Non landatzen dira elikagai horiek? Zer baldintzatan?

—BALIABIDEAK

Elikagaien garaien egutegiak Nafarroan:



Link >



Link >

—MATERIALAK

- Elikagai argazkiak edo publizitate-orriak
- Guraizeak, kartulinak eta itsasgarriak
- Ordenagailuak

—HELBURUA

- Fruta eta barazkien egutegi bat sortu eta zabaltzea, lan egiten den lekuan diren uzta garaien arabera.
- Garaiko kontsumoak gizarte eta ingurumen arloan dituen ondorioak eta garrantzia ulertzea.

—DINAMIKA

Talde txikietan, hainbat elikagaitako argazkiak emango zaizkie. Horretarako, hainbat saltokitako publizitate-orriak erabiliko ditugu, haietan agertzen diren elikagaiak mozteko eta garaien arabera sailkatzeko. Zer gaitasun sendotu nahi diren, IKTk erabili nahi badira, hori ordenagailuetan egiten ahalko da.

Banaketa urtaroen arabera egin daiteke (udaberria, uda, udazkena, negua) edo hila-beteen arabera. Horretarako, talde bakoitza urtaro edo hilabete multzo batez arduratu daiteke. Horrela, garaiko egutegia sortuko da, bai fisikoa bai ordenagailuan.

Ikerketa egitea proposatzen dugu elikagai batzuei buruz, bai eta haien atzean ezkutaturik dauden gatazkei buruz ere, eta herrialdean bertan edo urrunagoko beste batzuetan landatzen direnak aztertzea. Adibidez: Espainiako Estatuko hegoaldean legez kanpo diren ureztalurretan landatzen diren ahuakateak, Huelvako jornalarien prekaritate-egoera marrubien laborantzak, Costa Ricako anana monolaborantzak, Latinoamerikako soja monolaborantzak azienda elikatzeke, Amazoniako oihanaren desertifikazioa eragiten dutenak...

—GOGOETA

- Zer izan zaigu zailena? Eta errazena?
- Jaten al dugu elikagairik bere garaitik kanpo? Garaikoa ez bada, zergatik jarrai dezakegu elikagai hori jaten urte osoan? Nondik datoz?
- Zer baldintzatan landatzen dira elikagai horiek?
- Zer ondorio dituzte ingurumenean?
- Zer gatazka eta tentsio-egoera sortzen dira produktu horien etengabeko eskariaren ondorioz?
- Zer egin liteke halakoak ez gertatzeko?

Behin egutegia amaituta eta elikagaiak kontzienteki kontsumitzeak duen garrantziaz hausnartu ondoren, egutegia familiei eta bestelako hezkuntza-eragileei helaraziko diegu, horri buruzko azalpen txiki batekin batera.

—BALIABIDEAK

Garaiko egutegiak Nafarroan:



[Link >](#)



[Link >](#)

Albisteak elikagai jakin batzuk landatzearen ondorioez eta haien egoeraz:

Ahuakatea:



[Link >](#)



[Link >](#)



[Link >](#)

Nafarroa:



[Link >](#)

Marrubiak:



[Link >](#)



[Link >](#)



[Link >](#)

—MATERIALAK

- Hainbat koloretako plastilina (gutxienez 2)
- Ikerketarako ordenagailuak

—HELBURUA

- Elikagaiak (plastilinazko bolak) helmugaraino garraiatzea.

—DINAMIKA

Dinamika hau lagungarria izango zaigu urrutiko elikagaien merkataritzak eta hurbileko merkataritzak dituzten ondorioak agerian uzteko.

Talde handia talde txikitan banatuko dugu (talde osoarekin ere egin liteke, baina parte-hartzaileek denbora gehiago itxaron beharko lukete). Pertsona bakoitzak pilota bat egin beharko du plastilinarekin, ukabil baten erdia bezalakoa. Talde txiki bakoitzeko bolen erdiak kolore batekoak izango dira, eta beste erdiak beste kolore batekoa.

Behin bolak egindakoan, taldekide erdiak barrutiaren mutur batean jarriko dira, kolore bereko pilotekin, eta beste erdiak beste aldean, beste koloreko pilotekin. Hori talde guztiek egingo dute. Asmoa da taldekide erdien eta beste erdien artean tarte egotea, distantzia handiko merkataritza irudikatzen delako.

Parte-hartzaile bakoitzak, banan-banan, plastilinazko pilota bat garraiatu beharko du ahalik eta azkarren, beste aldeko pertsona bati eman arte. Horretarako, esku-ahurrean eramango du, eskua irekita utzirik eta pilotari heldu ezinik. Pilota erortzen bada, dagoen bezala jaso eta hortik aurrera jarraituko da. Bolak desitxuratzen badira, ezin izango dira bere onera ekarri.

Jokoa pertsona guztiek parte hartzen dutenean amaituko da.

Aldaketak: Ibilbide bakoitzean pilota gehiago eramatea proposa daiteke, bidaia gutxiago egiteko, edo taldekide bakoitzak ibilbidea azkarrago egitea, edo pilota guztiak beste aldera ahalik eta azkarren eramatea, etab.

—GOGOETA

Ondoren, erabilitako energia (nekea korrika egitean) eta piloten egoera aztertuko ditugu. Nola eragotzi genezakeen hainbestean nekatzea eta pilotak desitxuratzea

Plastilinazko bolak leku batetik bestera garraiatzen diren elikagaiak dira. Bidaien ondorioz, elikagaien kalitatea galtzen edo jaisten da (batez ere freskoak direnean), erraz hondatzen eta kaltetzen dira, pilotei gertatu zaien bezala. Bide batez, zenbait elikagaik honaino iristeko egiten duten ibilbidea eta horrek dakartzan ondorioak azalduko ditugu.

Aldaketa: beste aukera bat hurbileko merkataritza irudikatzea da. Oraingoan, taldekide guztiak elkarren ondoan egongo dira edo, gutxienez, hurbil. Pilotak taldekideen beraien artean trukatu behar dira. Eskatu egin daitezke, eskaini, batera erabaki nork ematen dion nori... Horrela erakusten da hurbileko merkataritzak elikagaien kalitate handiagoa bermatzen duela, salerosketan ari diren pertsonak zuzenean ezagutzen direla eta merkataritzaz bestelako harreman mota batzuk daudela.

Era berean, gogoeta eragiteko galderak egingo ditugu:

- Bi aukeretatik zeinek hartzen du egiazki kontuan elikagaietarako gauzarik onuragarriena? Eta pertsonentzat?
- Zer merkataritza mota bultzatzen dugu gure erosketen bidez? Zer ondorio ditu erabaki horrek?
- Zer egin dezakegu hori aldatzeko?
- Elikagai horiek mantentzeko eta ekoizteko erabiltzen diren tresnei eta ondorioei buruzko hausnarketa. Azaldu zer diren 0 kilometroko elikagaiak edo produktuak.
- Zer herrialdetatik iristen zaizkigu elikagai gehien?
- Ba al dakigu zer baldintzatan landatzen diren urrutitik datozen elikagaiak? Eta zein kopurutan?
- Eta zer ondorio dituen?
- Ezagutzen al ditugu beste herrialde batzuetako lurretan eta komunitateetan ekintza kaltegarriak egiten dituzten enpresak? Eta beren eskubideak defendatzeko borrokatzen diren pertsonak?
- Egoera horiek ohikoak edo ezohikoak dira? Zer pentsatzen dugu?

Proposatzen dugu horri buruz eta sortu dituzten gatazkei buruz ikertzea (komunitateen lekualdaketa, lur desjabetzeak, zuhaitz mozketak masiboa, hazien eta laboreen aberastasuna hondatzen duten monolaborantzak). Ikastalde handian aurkeztuko dute, nahi duten formatua aukeratuta (antzerkia, abestia, collagea, bideoa...). Zer irtenbide edo altematiba proposatzen dira horri dagokionez?

—BALIABIDEAK



[Link >](#)



[Link >](#)

“La naranja viajera”-ren egokitzapena (71. orr.)



[Link >](#)

—MATERIALAK

- Ordenagailuak/gailuak eta internet konexioa.
- Bisitak antolatzeko behar diren materialak

—HELBURUA

- Lurrarekin lotura zuzena duten nekazarien lana ezagutzea, bai eta ekimen batzuetan parte hartzeko aukerak ere.

—DINAMIKA

Nafarroan gertatzen ari diren kontsumo- eta aukera-alternatibak ezagutzeko eta haietara hurbiltzeko, auzoko hiri-baratzea edo ekoizleren bat bisitatzea proposatzen da, haren lantokia ikusteko. Gainera, gai horiek lantzen dituen erakunderen batekin jar gaitezke harremanetan, kontsumo arduratsuagoa ahalbidetuko duten aukera gehiago ezagutzeko. Ikasleek, horrela, harreman zuzena izango dute errealitate horrekin, eta sortzen zaizkien galderak egin ahal izango dizkiete gonbidatuei. Elkarrizketa aurretik ere prest eraman daiteke.

Ikasleen autonomia sustatzeko, bisita parte-hartzaileek berek antolatu dezakete, arduradunak lagundurik (elikadura-sistema hegemonikoarekiko alternatibak bilatzea, haiekin harremanetan jartzea, bisita bat hitzartzea, garraioaz arduratzea...).

—GOGOETA

Ondoren, elikagai ekologikoei eta haiek dakartzaten onurei buruz ikertzea eta galde-tzea proposatzen da, bai eta aurretiazko dinamiketan landutako kontzeptuei buruz ere, hala nola 0 kilometroko elikagaiez, garaian garaiko elikagaiez.

Bi errealitateak ezaguturik (alternatibak Nafarroan eta elikadura sistemak mundu mailan dituen arazoak), zergatik uste dugu sortzen zaizkiola erresistentzia eta alternatibak elikadura-sistema nagusiarik? Gure ustez, ba al dago alternatibarik beste herrialde batzuetan?

—MATERIALAK

- Siwatl erakusketako argazkiak eta argazki-oinak
- Petersen mapa
- Jokoa sortzeko behar diren materialak
- Paperak eta boligrafoak edo arkatzak

—HELBURUA

- Siwatl erakusketa ezagutzea, bai eta erakusten ageri diren El Salvadorreko lantza inguruneko emakumeen egoera ere.
- Ikaskuntzekin bat garatzea bai enpatia bai ekintza gaitasuna.

—DINAMIKA

Lehen zatian hainbat dinamika proposatzen dira erakusketa aurkezteko eta edukiak ikasleengana hurbiltzeko. Denak egin daitezke edota taldeari gehien egokitzen direnak aukeratu.

1. **Siwatl argazkiak** gelan edo gunean jarriko ditugu (I. eranskina). Lehen sentsazioak azalduko dituzte: zer iradokizun eragiten dieten, argazki horiek non eginda daudela uste duten, argazkietan agertzen diren pertsonen zer bizitza dutela uste duten, etab. Argazki bakoitzaren ondoan paperak utziko ditugu sentsazioak idazteko edo marrazteko. Bateratze-lanean, gero eta gehiago zehazten saiatuko gara, gaia azaltzen eta ekintza horiek zer herrialdetan garatzen diren jakiteko lagunduko duten datuak lortzeko.
2. Mapa bat erakutsiko diegu, ahal dela **Petersen proiektzio** bat: munduaren beste ikuspegi bat izan dezaten, hau da, ikuspegi horretan, herrialde aberastuak ez dira munduaren erdigunea, eta herrialdeen tamainak aldatu egiten dira, Hego globalari ikusgaitasun handiagoa emanez. Parte-hartzaileek edo dinamizatzaileak El Salvador kokatuko dute. Zer dakigu herrialde horri buruz? Edo ingurukoei buruz? Galderak egin daitezke, gero ikertzeko.

3. El Salvadorri buruz gehiago ikasteko, **kategorien arabera joko** bat sortzea proposatzen da, Party edo Trivial motakoa; hau da, talde bakoitzak kategoria bati buruzko hainbat galdera prestatuko ditu. Adibidez, 1. taldea kulturaren arloaz arduratzen bada, talde horrek galdera egin bai baina ezin izango ditu erantzun. Lankidetzan egitea gomendatzen da, hau da, ez dadila lehiarik izan. Parte-hartzaileek jokoa formatua, ikertu beharreko kategoriak, etab. aukeratu ditzakete. Landu nahi diren edukien arabera, hainbat arlo edo irakasgai sar daitezke jokoan.
4. Parte-hartzaileak talde txikitan banatuko eta talde bakoitzari argazki bat eman-go diogu **argazki-oina idatz dezaten**. Zer irudikatzen du? Zergatik da garrantzitsua ekintza hori? Zer ondorio ditu? Ondoren, benetako argazki-oinak eman daitezke eta irudi bakoitzarekin lotu.
5. **Mimikaren** bidez irudikatuko dugu nolakoa izango litzatekeen argazkian agertzen diren emakumeen egun oso bat. Gerta daiteke taldeek antzeko eszenak irudikatzea, baina onuragarria izan daiteke aurreiritzien edo genero-rolen ondorio diren ekintzak zergatik errepikatzen edo suposatzen diren aztertzeko (adibidez: zaintzarekin lotutako zereginak, harremanetan sartzeko moduak, etab.).

Gainerako taldekideak deskribatzen saiatuko dira zer ulertu duten. Zer argazki-oin dagokiola uste dute? Horretarako, pentsa dezakete zer agertu beharko litzatekeen argazki-oin horretan, eta informazio hori duen taldeari buruz galdetu, edota argazki-oin guztiak proiektatu eta ongien egokitzen dena aukeratu.

Aldaketak: mimikaren bidez irudikatu beharrean, proposa daiteke halaber **istorio bat idaztea** argazkiko emakumearen edo emakumeen egunerokotasunari buruz. Talde txikian egin liteke era partekatuan eta adostasunez edota folio birakariaren dinamikaren bitartez.

6. Behin argazki guztiei buruzko informazioa bildu ondoren, argazki bakoitzaren gai nagusiak berrikusiko dira (agroekologia, ongari naturalak, prestakuntza, elikadura-buru-jabetasuna). Badakigu zeri egiten dioten erreferentzia? Ezagutzen al dugu haietako- ren bat hurbiletik? Zergatik? Gustatuko litzaziguke haietako batean gehiago sakontzea?

Orain, elikagaiak landatzeko hainbat modu ezagutzen ditugunez, uste al dugu emakume horiek direla naturari kalte egiten dion gizarte-sektorekoak (zuhaitz mozketak, ma-siboa, pestiziden erabilera, monolaborantzak...), edo natura errespetatuz ari direla, aurreko dinamiketan ikusi dugun bezala? Zergatik?

Une egokia da **elikadura-burujabetasun** kontzeptua sartzeko, eta azaltzeko, kontzeptu horrek bere barnean biltzen dituela natura eta ingurumena errespetatzen dituzten nekazaritza eta ekoizpen moldeak, orain arte ikertu dugunarekin bat.

Elikadura-burujabetasuna herriek elikagaiak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko politika eta estrategia jasangarriak definitzeko duten eskubidea da, ekoizpen txiki eta ertainean oinarrituta, eta ez agroex-traktibismoan. Ingurunearekiko oreka eta errespetua lehenesten ditu. Kudeaketa molde horren helburua da kontsumitzaileari itzultzea mahaira daramana erabakitzeko eta kontrolatzeko gaitasuna, nekazaritzako eta industriako ekoizle handien eta interes ekonomikoen gainetik. Eskualde edo herrialde baten burujabetasuna beste herrialde batzuetako elikagai ekoizpenaren mende ez egotea du xede.

Behin hori azalduta, zer iritzi dugu elikadura-burujabetasunari buruz? Ba al genekien kontzeptu hori? Gure ustez, zer zailtasun ditu? Eta, zer abantaila? Zer aldaketa egin ditzakegu, kontzeptu hori gure egunerokotasunean sartzeko? Sortzen diren ideien arabera, haietakoren bat taldean bertan, ikastetxean, ikasleen etxeetan... lantzea baloratu daiteke.

Beste aukera interesgarri bat da elikagai-burujabetasuna ardatz duten erakunde eta taldeenagana hurbiltzea

—MATERIALAK

- Errezetak
- Osagaiak

—HELBURUA

- Errezetak era jasangarrian prestatzen ikastea.
- Aurreko belaunaldien elikadura molde jasangarriak berreskuratzea.

—DINAMIKA


Azken jarduera bat ere proposatuko dugu, hots, errezeta bat egitea garaian garaiko eta 0 kilometroko elikagaiak eta jaki ekologikoak erabiliz. Horrela, parte-hartzaileek lantutako edukiak eguneroko bizitzako jarduera batean aplikatu ahal izango dituzte.

Interesgarria izango litzateke taldearekin joatea elikagaiak erostera, eta, horrela, zer dendak saltzen dituzten ikertu behar izatea, edo auzoan zein dauden, saltokietako pertsonekin hitz egin ahal izatea, etab.

Aldaketa: Beste aukera bat izan daiteke **etxekoen edo auzokoen errezetak berreskuratu** eta errezeta-liburu batean biltzea. Kasu horretan, adinekoekin harremanetan jarri beharko lukete, litekeena baita adinekoek lotura handiagoa izatea landa-eremuekin eta landa-bizitzarekin. Lehenago, ez zegoen egun adinako eskaintzarik produktu kilometrikoetan. Errezeta-liburua ingurune hurbilean zabaldu edo banatu daiteke, jendea sentsibilizatzeko eta beste elikadura modu jasangarriago batzuk berreskuratzeko.

—GOGOETA

- Zergatik da garrantzitsua errezetak prestatzea, osagaitzat dituzten elikagaietan pentsatuta? Zer estrategia erabil ditzakegu gure otorduak etikoagoak eta jasangarriagoak izan daitezen?
- Zergatik izan ohi dira jasangarriagoak lehenago erabiltzen ziren errezetak? Zer aldatu da?
- Uste duzu elikadura modu hori berreskuratu daitekeela? Onuragarria izango litzateke?









Siwatl



Emakumeak aldaketak lantzen